

## 15. Henrike Knörri eta Txillardegiri gorazarrea



*Henrike Knörr Borrás*



*Jose Luis Alvarez Enparantza-Txillardegui*

### Henrike Knörr

Henrike always supported the authenticity of Basque inscriptions in Iruña-Veleia and that Archaeology would demonstrate it:

“Archaeologists have to give us the inscriptions dating. Phylologists will talk afterwards, historians...”

He never accepted the assertion that inscriptions were a fake, as Official Vitoria-Gasteiz linguists declared. He thought that Basque inscriptions were from three centuries later and continued firmly against environment, in spite of his disease and loneliness. The latter felt because of his fellows from University and The Basque Language Academy have left him alone.

### Henrike Knörr

Henrikek beti defendatu zuen ostraken egiazkotasuna eta argi zeukan gai honetan arkeologiak zuela lehenago hitza:

“arkeologoek, beren lana egin behar dute eta zehaztu behar digute noizkoak diren ostrakak eta gero hitz egingo dugu hizkuntzalariorik, historialariek, etab.”

Ez zuen Gasteizko Euskal Filologiatik zetorren faltsutasunaren aldeko olatuari kasurik egin eta bere ideiei eutsi zien (ostraken datak hiru mendez atzeratu bazituen ere). Hori guztia nahiz eta gaixorik egon eta fakultateko eta Euskaltzaindiako lankideen bazterketa sentitu.

### Henrike Knörr

Henrike siempre defendió la veracidad de las ostracas y siempre tuvo claro que era un tema en primer lugar arqueológico:

“los arqueólogos han de realizar su trabajo y nos tienen que esclarecer de cuándo son las ostracas, tras lo cual hablaremos los filólogos, los historiadores...”

No hizo caso a la ola a favor de la falsedad que venía de Filología Vasca de Gasteiz y se mantuvo fiel a sus ideas (aunque retrasó tres siglos la fecha de las ostracas). Todo ello a pesar de su enfermedad y la soledad que sintió de sus compañeros de facultad y de Euskaltzaindia.

### Txillardegi

He also signed a manifesto, together with 2,132 people, in favour of Iruña-Veleia findings clarification.

He stated clearly that Basque graffiti were genuine in letters sent to Martin Elexpuru after having studied the subject in deep.

This support given by the creator of Basque “batua”(unified), is of a great importance and a big backing for the pro-veracity movement.

### Txillardegi

Txillardegik, SOS Iruña-Veleia Plataformak sustatutako “Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua” izenpetu zuen beste 2.132 gehiagok bezala.

Txillardegik Martin Elexpururi idatzitako gutunetan “ostrakak egiazkoak dituk” adierazi zion, aldeko eta kontrako txosten guztiak irakurri eta gaia sakonki aztertu ondoren.

Euskara batuaren sortzaileetako batek grafitoei emandako babesak izugarrizko garrantzia dauka eta egiazkotasunaren aldeko mugimenduak izan lezakeen laguntzarik onena izan da.

### Txillardegi

Txillardegi fué junto con otras 2.132 personas, uno de los firmantes del manifiesto para el Esclarecimiento de Iruña-Veleia impulsado por SOS Iruña-Veleia.

Txillardegi, en las cartas enviadas a Martín Elexpuru le dijo claramente que “las ostracas eran verdaderas”, después de haber leído los informes a favor y en contra y de haber profundizado en este tema.

Este apoyo dado a los grafitos por uno de los creadores del euskera batua tiene una gran importancia y es el mejor apoyo que podía tener el movimiento pro-veracidad.



## Henrike Knörr (1948-2008)

Filologoa eta euskaltzaina hil zaigu. Iruña Okako aurkikuntzei dagokiolarik ez da aseptikoa izan, maitasunak eta afektibitateak zuzendu du bere jarrera eta uste dugu euskaldun askoren ordezkari bilakatu dela. Bere ahotik zuzenean entzun izan genuen eta egunkari zaharretan irakur daiteke adibidez, zenbat poztu zen Eliseo Gil-ek Iruña Okako indusketen zuzendariak, hots egin zionean esanez duela 1.700 urteko euskarazko hitzak azaldu zirela ostraketan (zeramika puskak grabatuak) eta ez zuen bere urduritasuna ezkututzen aurkikuntzak zuen garrantziarekin.

Zer poza hartuko zukeen Mitxelena jaunak aurkikuntzen berri izan balu. Beti defendatu du azaldutako euskarazko hitzen jatorria eta aintzinasuna, arkeologoen emandako informazioen arabera, eta aurkakoa demostratzen ez den bitartean.

Eszeptikoen aurrean aurpegia eman du askotan, oldarkor batzutan esanez adibidez, eszeptikoen irentsi beharko zituztela zalantza guztiak, giro eszeptiko orokor batean murgilduta, euskal filologoen artean ere. Egia esan ez gaude ohituta euskal zientifiko, intelektual eta euskaltzain baten aldetik antzeko jarrera ausartik ikusten eta eskertzekoa izan da.

Ez dugu ahaztu nahi bere ahotik zuzenean entzundako hitzak sortu ziguten zirrara, bere hitzaldi batean esan zuenean "Iruña Okan azaldu zirela hedabideetan argitaratutako hitzez gain, duela 1.700 urteko hirurogeita hamar bat esaldi motz (jan edan lo) eta ehun luze bat hitz euskaraz. Bakarrik bi eraikin arakatu omen dituztela Iruña Okako indusketetan eta zalantzarik ez izateko askoz ere euskal hitz gehiago azalduko zirela".



Iruña Okako aurkikuntzen aurkako eszeptikoen kritikak areagotu eta deskalifikazio pertsonaletara igaro zirenean, zalantzan jarriz ikertzaileen ohore pertsonala ere, Henrike Knörr-en jarrera ere gardena eta ausarta izan zen, eta bera izan zen euskal filologo bakarra Veleiako komunikatua sinatu zuena ikertzaile taldearekin batera, non ozenki esaten den besteen artean, "Iruña Okako ostrakak erromatar garaikoak direla, bere garaiko beste milaka ebidentziekin batera azaltzen direla, erromatar garaiko geruzetan azaldu direla eta zigilatzen dituzten beste erromatar garaiko geruzen azpian".

Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen batzorde zientifikoa izendatzea Iruña Okako aurkikuntzak egiaztatzeko eta bertan nola ez, Henrike Knörr izendatua izan zen eta askok gure ordezkari bezala sentitzen genuen eta bere heriotzarekin umezurtz utzi gintuen eta eskertu nahi diogu bere jarrera maitakorra eta ausarta.

Euskararen Jatorriaren biltzarreko partaideak, batzutan ez gara bat etorri Knörr jaunaren iritziekin, gure biltzarretako ponentzietan irakur daitezke iberikoa eta euskararen harremanak defendatzen dituzten autoreak, berak deitoratzen zituenak, nahiz eta tradizio luzea izan Larramendi, Astarloa, Humboldt, Tovar, Krutwig... batzuk aipatzeagatik. Irakur daitezke ere euskararen aintzinasuna eta mintzatzen zen azalera handia defendatzen dituzten iritziak, atzerritarrak batzuk Humbolt-en eskolaren jarraitzaileak Bengtson, Vennemann, Openheimer eta euskaldunak besteak Krutwig, Mujika, Kapanaga, Naberan, Zubiaga eta Lizarduikoa.

Iruña Oka Argitzeko Batzordea antolatu aurretik, eskatu genuen ere, atzerrira zabaldu behar zela nazioarteko adituak bertan sartuz, ez da gutxiesten dugulako Euskal Herriko unibertsitateko aditurik inolaz ere, baizik eta, zalantzarik ez dugulako Iruña Okako indusketek euskararen unibertsaltasuna dutela bere baitan eta nazioarteko batzorde zientifiko batek, sinesgarritasun eta zabalkunde gehiago bermatzen duelako munduan.

Tamalez Henrike Knörr-en heriotza tristeak debate hauek zabaltzen ditu berriro, Batzorde zientifikoan ordezkatu behar delako, eta eskatzen dugu bere iritziak gogoan izatea.

(Euskararen Jatorriaren 3. Biltzarrean irakurritako testuaren zati batzuk)


## Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi 1929-2012

Euskalari, euskaltzale, euskaldun bihotzeko, eta, garrantzitsuena, pertsona aske bat joan zaigu.

Txillardegi, herri batek horrelako bat sortzeko hamarkada asko behar duen horietako pertsona berezi eta ezinbestekoa izan da Euskal Herrian. Ingeniaritzaren ezagutzatik euskararen normalizazioari izugarrizko laguntza eman zion, euskara batuaren gurasoetako bat bihurtuz. Baina, horrez gain, euskal soziolinguistikaren aitzindari nagusia ere izan zen, ikerketa mailan (gaur egun gainditu gabe dauden azterketa garrantzitsuak utziz) zein gizartearen sentsibilizazio mailan (EHE sortzen lagunduz).

Euskararen jatorrirako ere ekarpen garrantzitsua egin zuen, adinez nagusi izanik eta osasunez makal egonda ere, Arabako Iruñako ostrakak aztertu ondoren, egiazkoak izan zitezkeela ondorioztatu zuenean. Orduan “Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua” izenpetu zuen, beste 2.000 pertsonekin batera, horien barruan Iglesias, Elexpuru eta Mujika moduko hizkuntzalari ausartekin. Adierazpen horretan Arabako Foru Aldundiari grafitoen datazioak, indusketa kontrolatuak egitea eta ostrakak egoera onean ote dauden egiaztatzea eskatzen ziren.

Txillardegik esan zuenez, ostraketan agertzen diren testuek ez dute zertan kontra egon behar orain arte izan dugun ikuspuntuarekin. Ostraketan agertutako aditz batzuk aipatu zituen (nor Txillardegi baino hobeto aditzen gaiari buruz hitz egiteko!), esanez, aditz forma zahar batzuen aztarnak izan zitezkeela. Txillardegik ez zuen sinatu manifestua agertu eta berehala. Antza, zalantza handiak izan zituen baina txostenak eta eztabaida ikusita, gaian sakondu eta ondorio hori atera zuen. Bere adinean eta bere egoeran, gai izan zen, berriz ere, euskalgintzan oso jende gutxi erakutsi duen mailari eusteko.



Txillardegiren jokaeraren beste muturrean baditugu arkeometria zer den ez dakitenak, gai “zailen” aurrean lotsagabeki isiltzen direnak, euskararen historia ezagutzeko ezinbestekoak diren ostrakak ikertu nahi ez dituztenak edo Arabako Iruñako eremu oso bat hondeamakinaz suntsitu dutenak...Horien aurrean zein beharrezkoak diren Txillardegi bezalako pertsona aske eta irekiak!

Zure falta nabarituko dugu.

(Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak hedabideei bidalitako gutuna, 2012ko udaberrian)